HARITZ
1973-1998

# BARREN

1998ko abuztuaren 21a
V. urtea - 246. zkia
ELGOIBARKO ASTEKARIA

ERREPORTAJEA

ELKARRIZKETAK

JAIETAKO
EGITARAUA

# Ondo pasau!



"Hau dek, hau dek, hau dek umoria..." Abesti herrikoia

# Merkatu Plaza

*Uste duzuna baino askoz gehiago!*



Jai zoriontsuak herritar guztioi!

**AMAIA frutadenda**



**ARANTXA eta MARIAN frutadenda**



**DOMINGUEZ arrandegia**



**IÑAKI eta AMPARO urdaitegia**



**Mª ANGELES frutadenda**



**OSORO urdaitegia**



**TXIRIBOGA taberna**



**ZABALA frutadenda**



**ZABALA urdaitegia**





## JOSE INAZIO SARASUA

# "Dantzarixek nahi debenian ertengo naiz Haritz Dantza Taldetik"

***Dantza tradizionala asko gustatzen bazaio ere, ez du bere burua dantzarako gauza ikusten. Akaso horregatik izango da txistularia. Modernitateari errezeloz begiratzen dio eta beldur da denok amerikar bihurtuko garen. 42 urte ditu J. Inazioa Sarasuak eta bere denbora librea euskal kulturari eskaintzen dio. Euskadiko Kutxako ikuskatzailea dugu eta zorrotza dela aitortu digu, dantzariei asko eskatzen diela, gehiegi akaso. Haritz Euskal Dantzari Taldeko irudi publikoa da, irudi serioa eta langilea. 14 urte dira Haritzeko zuzendaritza hartu zuela eta berak esan digunez, `sartutako prezio berian irtengo naiz, nik ez daukat klausularik, dantzarixek nahi debenian lagako dot Haritz`.***

**- Kontaiguzu nola sartu zinen mundu honetan.**

- Zortzi ur
BARKO IZA
Baina hama
txistu bat opa
kin lehen esk
Patxiko Etxeb
Gero, nire ait
zu zanakin Si
behin Antoni
txabalitoak tx
kik nola jo!'
etxeko komed
tua nola jota
Elgoibarko I
eskolaren h
izan zela esa
gu. Txistua
nintzanian
laga in naban

**- Eta Haritz**
**hasi zinen?**

- Oin dala 1
hartu naban I
tzen ardu
Aurretik txis
jo baino
naban egiten
baina poliki
poliki Odeoik



jaialdietako antolakuntza lanetan ere hasi nitzan. Ordurako txistularixek Elgoibar-

naban Udaletxian. Udalak nire ideia azaldu zion Elgoibarko Izarrari eta honek
zaban. Botazio bat egin zan
rixa izan bihar nitzan ala ez
o, eta baietz urten zan.

**tu zaitu Haritzi hainbeste**

zarixek, inolako dudarik
un daudenak eta urteetan
a direnak. Haritzen bueltan
endeak lana hutsaren truke
aldu didan borondatea izan
uena. Gizarte honetan nik
atzen dut musutruk lan egi-
jendia. Gainera, Haritzen
lanak asko bete nau.

**zer eman diozu Haritzi?**

urte on batzuk, eta batez ere
diodala esango nuke. Nik
a nuen dantza taldean sartu
an: 'nik egingo dotena itxura
izango da, detaileak zain-
Koordinazioa eta Taldearen
ak markatzea izan dira nere
egin nagusiak. Hortik aurre-
koa dantzariek egin dute,
meritua eurena da.

**- Haritz kanpoan herrian baino gehiago estimatzen ela entzun izan dizut.**

Nik estimatu baino gehiago

POL-POL
TABERNA
San Bartolome, 19 - Tel: 943 74 08 74

Maria Urizar
ileapaindegi mistoa eta solariuma
JAI ZORIONTSUAK PASA
Errosario 9-1 ezk. ☎ 943 74 44 89

baloratu esango nuke. Herriak estimatzen gaitxu, dantzan egitera joateko eskaera asko jasotzen ditugu. 97an, adibidez, 50 agerraldi izan ditxugu, honek zerbaitx esan nahi deu. Gainera 25. urteurrena dela-eta eregalu mordo bat jasotzen ari gara, eta hau egiten ari garen lana eskertzeko era bat dela esango nuke.

**- Zein funtzio bete behar du Haritzek XXI. mendean?**

- Kultura tradizionala mantentzea izango da gure funtziorik garrantzitsuena. XVI. mendean Elgoibarren euskal dantzak bazirela erakusten duten aztarnak daude, beraz, tradizio zahar hau mantentzea izango da gure helburua.

**- Esaiguzu 25 urteotan bizi izan duzun une pozgarri bat.**

- 87an Ikastolako frontoian Nazioarteko I. Jaialdia egin genuenean, hura ez zegoela superatzerik esan zigun jendeak.

Dei asko eta asko jaso genitxun zoriontzeko. Benetan pozgarria izan zan. Aurten 12. jaialdia antolatu dugu eta ezin da konparatu ere egin estrainekoarekin. Gauzak etengabe hobetzen dihardugu eta hau pozgarria da.

**- Tristerik ere izango zen, ezta?**

- Bai, tristiak ere asko izan ditxugu. Tristiena 89ko otsailaren 25ean izan zan. Egun horretan, taldeko kidea zen Iñaki Berasaluze eta honen andregaia, Lourdes Alustiza, auto istripuz hil ziren. Eta guk egun berean Getxon *Zortziko* ikuskizuna aurkeztu genuen, suspenditzea eskaini ziguten baina dantza egitea erabaki genuen. Oso gogorra izan zan. Bestalde, Kristina Azpiazu eta Segundo Zengotitaren heriotzak ere gogoan dauzkat.



**- Gaia aldatuz, Haritzen bulego zentrala zure etxea izan da kasu gehienetan, eta zure ama errekaduen arduraduna.**

- Bai, hala da. Eta nik ez daukat batere lotsarik amak sekretarixa papera oso ondo itxen dabala esateko. Beti jakiten deu ni nondik nora nabilen. Noizean behin erabaki txikiren bat ere hartu izan deu. Berak oso pozik itxen daban lana da, eta gainera gaztetu egiten da.

**- 25. urteurrena dela-eta, ez al da 'pasada' bat prestatu duzuen programa?**

- Pasada bat jendearen eta herrixaren erantzuna izan da. Pasada bat dantzariak egiten ari diren lana da, pasada bat Gelatxoren omenaldian Plaza Handiak zuen itxura da, pasada bat San Juan bezperan Plazan zauan anbientia da; pasada bat alde horretatik dela esango nuke nik.

**- Estresa zer den ba al daki Jose Inaziok?**

- Jakin badakit baina ez dut estresik izaten. Tentsioa bai, gauzak ondo egitea gustatzen zaidalako. Tentsio hori askotan dantzarien gain deskargatzen dot, baina gure arteko harremanak oso onak direnez ez daukagu batere arazorik aurrera egiteko.

**- Askotan entzun izan da Sarasua gogorregia dela, zorrotzegiaren fama daukazu.**

- Nik zuk aitxatu ez dozun hitz bat sartuko nuke: disziplina. Dantza egitea ez da hanka gora jaso-tzea bakarrik, arropak zaindu behar dira, en-tsaioak ganoraz egin behar dira,... Zorrotza naiz, baina sartu nintzanean 20 dantzari ere ez zeuden eta gaur egun 60 pasa gara. Ni oso serioa naiz, puntualitateari aparteko garrantzia ematen diot, jendeari zor zaion errespetua dela iruditzen zait. Oso alemana naiz, nik ez diot inprobisazioari lekurik egiten.

**- Amaitzen hasi beharko dugu. 25 urte barru Haritz bizirik egongo al da?**

- Alde batetik, ez naiz batere baikorra euskal kulturari dagokionean. Bestetik, egunen batean, euskaldunok gure gauzak (euskara, dantza, ...) baloratzen hasiko garen esperantza daukat, eta horretxek mantentzen nau itxaropentsu.

**- Amaitzeko zerbait esan nahi?**

- Udalari eskerrak eman nahi dizkiot erakutsi digun konfidantzarengatik. Bestalde, benetan eskertzekoa da jendeak Haritzi eman dion eta ematen ari den erantzuna. Eta batez ere, 25 urteotan pasa diren dantzariak eta musikariak txalotu nahi ditut, Eibarko Kezka eta Debako Gure Kai ahaztu gabe, oso ondo portatu dira.

**Imanol Larrañaga**

foto azkue
Ondo pasa Bartoloak!
San Bartolome, 26 Tel: 943 74 08 48

Merino zapatak
Haurrentzako, gazteentzako eta kirolerako oinetakoak
Ondo pasa jaiak!
Errosario, 12 ☎ 943 74 07 08


Lanbroa
Pedro Muguruza, 5
Tel: 943 74 08 06
20870 ELGOIBAR

KEMEN Belardenda
Ondo pasa jaiak!
Estuasuna, antsietatea, depresioa, lo eza, tabakismoa, loditasuna, fobiak,... tratatzen laguntzen dugu. Zatoz, ez zara damutuko!
NATUROPATA - Programazio neurolinguistikoa (Practiticcioner eta Masterra) - MASAJEA - REIKI - Osatze naturalaren USUI sistema
San Bartolome, 25 · Tel: 943 74 40 31

Jai zoriontsuak pasa itzazue!

HERRI-GAIN
ERRETEGIA
San Pedro auzoa, 4
☎ 943 74 30 40

KAROBI
PUB
ELGOIBAR
San Frantzisko, 35 . Tel: 943 74 06 38

BOUTIQUE
DEL PAN
Enpanadak
Enbutidoak
Baserriko ogia
Boileria
Ondo pasa jaiak!!
San Bartolome 6 - Bernardo Ecenarro 1
ELGOIBAR ☎ 943 74 33 92

# REZOLA



**gasolindegia**

Deba kalea, 20
**Tel:** 943 74 00 17



**ZERBITZU BERRITUAK**

Prezisiozko garbiketa

Garbiketa neumatikoa

Aspiragailua

BERUNIK GABEKO GASOLINA ▪ MICHELIN AGENTZIA ▪ GURPIL NEURKETA

---

NAVA S.L.

In rm t

Santa Ana, 44
Tel. - Fax: 943 74 44 51
20870 ELGOIBAR

- DISEINU GRAFIKOA
- PUBLIZITATEA
- IRAGARKIAK
- BISITA TXARTELAK
- KARTELAK - KARPETAK

ERA GUZTIETAKO LANAK...

n para
San art m
Ja ak

Zatoz eta eskatu aurrekontua

ZEZEN-BIDE

AUTO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak



%10eko deskontua
Gazte Txartelarekin

San Frantzisko, 43 – Tel: 943 74 27 20 – ELGOIBAR ■ Zezenbide,1-1 – Tel: 943 20 34 45 – EIBAR



ZELETA

BARAZKIAK



NEKAZARITZA TRADIZIONALA
ETA BABESTUA

KALITATEA

EUSKAL BASERRI

Kalitatezko produktuak
ortutik mahaira zuzenean

San Bartolome jai
zoriontsuak pasatu!

ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa ELGOIBAR

# 25 urte dantzan





Abuztuaren 24an, San Bartolome Egunean, Haritz Euskal Dantzari Taldekoek soka-dantza estreinakoz dantzatu zutenetik 25 urte beteko dira. 1973ko San Bartolome Egunean Soka-dantza nork dantzatu ez zegoela-eta, Udala, Elgoibarko Izarra Elkartean euskal dantza irakasten zutenekin harremanetan jarri eta, horrela, neska-mutil kuadrila bat elkartu zen San Bartolome Eguneko soka-dantza egiteko. Dantzak ikasteko denbora justuarekin, abuztuaren 24an, 12 bat lagun Plaza Handira atera ziren dantzara. Haritz Dantzari Taldearen estreinako saioa izan zen egun hartakoa. 1973ko San Bartolome Egunean ereindako hazia ernalduz, sendotuz eta indartuz joan zen, 25 urteko arbola ederra bihurtu arte. Euskal Herriko punta-puntako dantza taldea izatera iritsi da, iparraldeko zein hegoaldeko dantza guztiak menperatzen dituelarik. Aurtengo San Bartolome Egunean, hasierako dantzari haiek (goiko argazkian) eta gaur eguneko dantzariek (behekoan) soka-dantza egingo dute elkarrekin.

Zorionak eta beste 25 bete ditzazuela!

**Argazkiak:**
**Azkue**
**Haritz Dantzari Taldea**
**BARREN**


Truk
San Frantzisko, 27
Tel: 943 74 26 21

ARKUPE
TINDATEGIA
Ondo pasa jaiak!
Foruen Enparantza 4
Tel. 943 74 00 91

Talleres Myl S. A.
PREZISIO MUNDU BAT
Jai zoriontsuak!
Autonomia, 4 Tel: 943 74 14 44

- Kontabilitate
- Lan
- Fiskal
URKIDI AHOLKULARITZA
Kalamua 12
ELGOIBAR
Tel-Faxa:
943 74 18 91
ITT ERCOS ASEGUROAK



**1976** urtea. Haritz Dantzari Taldeko lehenengo belaunaldiko neskak San Pedron sagardantza egiten agertzen dira Morkaikok antolatutako Finalista Egunean. 25 urte hauetan Haritz Dantzari Taldeak era guztietako ekitaldietan parte hartu du. Herriko talde zein kolektiboen eskari guztiei erantzutea izan da Haritzen lema nagusia. Iaz, esaterako, herriko 22 elkarteren eskariak jaso zituzten.

**1978** ko Trinitate jaiak. Argazki bitxia da honako hau, normalean dantzari taldeek ez dutelako tanborradetan parte hartzen. Baina urte hartan Haritz Dantzari Taldekoak tanborradakoekin irten ziren giroa animatze aldera. Argazkikoak, nahiz eta batzuk falta diren, hasierako dantzariak dira eta txistulariak, Elgoibarko Izarrakoak. Dantzariak Bizkaiko dantzak egiteko jantziekin daude.





Gabi
JATETXEA
Ondo pasa San Bartolome jaiak!!
Nafarroa plaza - ELGOIBAR - Tel. 943 74 12 30



**1979**an, Haritzekoak Gernikara joan ziren dantza saio batean parte hartzeko. Lasarte-Oria inguruan egiten den Sorgin-dantza eskaini zuten. Dantza hau bitxia da benetan; mutil batzuk nesken arropekin jazten dira eta besteek gonak altxatzen dizkiete.



**1982**ko San Bartolome Egunean, Haritz Taldekoek Soka-dantza egin zuten Plaza Handian. Egun hartan Ansola anaiak omendu zituzten. Argazkian, beheko ilaran makurtuta, eskumatik hirugarrena Segundo Zengotita zena agertzen da. 25 urte hauetan Haritz Taldean ibilitako 3 kide hil dira. Kristina Azpiazu eta Iñaki Berasaluze dira beste biak.



**1984**an, San Rokeko jaietan egin zuten dantza. Haritzekoek auzo guztietako jaietan hartu izan dute parte: San Pedron, San Migelen, Sallobenten, San Roken eta, sasoi batean, baita San Antolinen ere.

Talleres ALBE
KANPO ETA BARRUEN REKTIFIKATUAK - PLANEATUAK
CRUSHING BIDEZ PERFILEN PLANEATUAK
BROTXATUAK - MAKINARIA KONPONKETA
Trenbide kalea, 21. Tel. 943 74 32 86. ELGOIBAR (GIPUZKOA)
Jai zoriontsuak elgoibartar guztioi!



1985eko Gabonetan eskainitako jaialdia ***Odeon*** antzokian. Argazki honetan Haritz Dantzari taldeko bigarren belaunaldia agertzen da. Dagoeneko hasierako dantzari gehienek lagata zuten taldea, bat edo bestek izan ezik. Jaialdi hau bi edo hiru urtetik behin egiten zen. Urte batzuk beranduago antolatzeari laga zitzaion eta gaur egun, Nazioarteko Folklore Jaialdia jaialdi honen ordezkoadela esan daiteke.

1987. urtean, Santa Agedako koruetan parte hartzeko eskaera jaso zuten Haritzekoek. Pare bat urtetan Santa Eskekoekin batera irten ziren momentu baju xamarra izan baitzen Santa Agedako koruarentzat.



ULATZ, s.l.
SUKALDE eta KOMUNERAKO ALTZARIAK
Onso pasa San Bartolomiak!
Pedro M. Urruzuno, 8 Tel: 943 74 38 44

ESAYDE S.L.
AUTOMATISMO ELEKTRIKOAK
San Roke, 30 behea - Tel. 943 74 38 09





**1987**. Sasoi batean euskal jaiek gorakada handia ezagutu zuten. Ezkerreko argazkian Eibarko euskal jaira joan zen taldea agertzen da. Urte hartan Haritz Dantzari Taldeak azken aldiz hartu zuen parte euskal jai batean. Beheko argazkia 1963koa da, Elgoibarren euskal jaia egin zenekoa.



**1991**ko Folklore Jaialdia. Portugaleteko Elai-Alai Dantza Taldeak proposatuta, Nazioarteko Folklore Jaialdia 1987an egin zen estreinakoz Elgoibarren. 12 urte hauetan Haritz Dantzari Taldekoek beste herrialde batzuetako 24 talderekin egin izan dute dantza, asko profesionalak. Gainera, jaialdia bera ere antolatzen dute.



**1994**an, Zuberoako traje berriak probatzen. 1987an hasi ziren jantzi berriak egiten. Ordura arte, kanpoko taldeei eskatu behar izaten zizkieten zenbait dantza egiteko behar ziren trajeak baina 87tik aurrera, Udalaren urteko diru laguntza osoa trajeak egiten inbertitu zuten. Horri esker, gaur egun ondare polita dauka Haritz-ek jantzietan: Zuberoakoa, Lapurdikoa, Behe Nafarroako, Nafarroako Auritzekoak (Burguete), Erronkarikoak, Urdiaingoak, Larrain dantza egiteko trajeak, Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko dantzak egiteko traje osoak (neskena eta mutilena) eta Arratiako jotak dantzatzeko trajeak.

VIAJES ECUADOR
Ondo pasa jaiak eta zorionak Haritz!
Errosario, 4 • Tel: 943 74 45 68 • Faxa: 943 74 46 05

ION GARAJEA
Motozerra, desbrozadora eta motorren salmenta eta konponketa
S.Frantzisko, 53
Tel: 943 74 01 86



1993an San Migeleko jaietan. Azken 9 urteetan hutsik egin gabe egon izan dira San Migeleko jaietan.



1994, Paris. 1988an, J. A. Urbeltzen muntaietan parte hartzen hasi ziren. 1990ean Madrilera egin zuten bidaia Urbeltz-en 'Zortziko' ikuskizunarekin. 1994an, berriz, 'Alakiketan' muntaiarekin Parisen eta Confolens herrian izan ziren. Urte berean, Belgikara joan ziren Haritzekoak, oraingoan eurak bakarrik. Belgikan eta Frantzian ezezik, Portugalen ere izan dira.



1994ko San Bartolome Eguna. 1964an Soka-dantza San Bartolome Egunean egin zen estrenaikoz, aurrez Txiki Egunean egiten baitzen. 94an, 30. urteurrena bete zen eta Haritz Dantzari Taldekoek omenaldia eskaini zieten herriko dantzariei. Luistarrekin, Baltasar Elkartearekin eta Ongarrirekin dantza egin zutenak zeuden tartean, baita Elorrako, Elgoibarko Izarrako eta Haritzeko dantzariak izandakoak ere.

NORFO S.L.
La Estrella
ASEGURUAK
• ELKARTEEN ALDAKUNTZA ELKARTZE ETA ERAKETA.
• LAN, KONTABILITATE ETA FISKAL AHOLKULARITZA.
• ALOKATZE KONTRATUAK
• JUBILAZIOA (Pentsioak)
P. M. Urruzuno, 6. Tel: 943 74 31 40. Faxa: 943 74 41 23

XABIER
ILEAPAINDEGIA
Eskatu eguna eta ordua
Ondo pasa jaiak!
San Bartolome 13, Tel: 943 74 19 97

API Burtsa informatikoa

# GABILONDO

317 api

INMOBILIARIA AGENTZIA

Zuzenbidean lizentziatua



API { Edurne Gabilondo Loyola
Jose Mª Azpeleta Iturricastillo

**Ondo pasa San Bartolome jaiak!**

San Frantzisko, 51-ezk ELGOIBAR • Tel: 943 74 44 67

**ERAIKUNTZA BERRIA**
- Azkenengo etxebizitzak
- 2-3 logela
- Erdigunean

**GARAJEAK**
- Erdigunean
- 580.000 pta.tik aurrera

**AHOLKULARITZA JURIDIKO eta FINANTZIEROA**

Salerosketa eta alokairu kontratoak
Era guztietako inmobiliaria-lanen kontratoak
Hipoteka maileguen azterketa
Balorazio, tasazio eta peritatze ekonomikoak





*Muruamendiaraz*
*gozotegiak jai goxo-goxoak opa dizkizue herritar guztioi.*
*Aupa San Bartolo!*



San Bartolome 34-35 • Tel: 943 74 28 75 • Elgoibar



astondoa, s.a.
piroteknia

Gure suek
San Bartolome
jaiak
piztu ditzatela!

Tel: 94 673 90 16
Faxa: 94 631 71 40
48143 AREATZA-VILLARO
**BIZKAIA**





**1996**ko urrian ospatu zen Kilometroak jaiaren bueltan, Haritz Dantzari taldeak jaialdi handi bat antolatu zuen Portugaleteko Elai-Alai taldearekin, Zuberoako Urdiñarbeko dantzariekin, Tuterako Udal Dantzari Taldearekin eta Arabako Eltziegoko dantzariekin. Esperientzia benetan aberasgarria izan zen eta taldeak oso gustura geratu omen ziren.



**1996**ko abenduan, Elgoibar herria sortu zeneko 650. urteurrena ospatu zen. Haritz Dantzari Taldeko kideek XVI. mendeko jantzietan oinarritutako traje ikusgarriekin jaiari giro eta kolore berezia eman zioten.



**1998**an Haritz Dantzari taldeak 25. urteurrena ospatzen dihardu. Uztailaren 5ean, Trikitilari Egunean, Pedro Sodupe 'Gelatxo' omendu zuten. Gutxitan ikusi izan dira horrelako jaialdiak Elgoibarren. Euskal Herriko punta-puntako trikitilariak etorri ziren, musutruk etorri ere, Gelatxori euren esker ona adierazteko. Haritz Dantzari Taldekoak dantza egiteaz gain, antolakuntza lanetan ere aritu ziren.

ITZALA Edergintza
- Aurpegi tratamenduak
- Gorputz tratamenduak
- Masaia
- Sauna
- Solariuma
San Frantzisko, 49 1 esk. Tel: 943 74 43 03

Aranbur Bitxiden
Ondo pasau San Bartolome jaiak!
San Frantzisko 26 - ☎ 943 74 25 35

San Bartolome jaixetan JO TA SUA!
RAIKS
KAFETEGIA
943 74 42 65


PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
San Roke, 30 behea. ☎ 943 74 36 52/74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

**talleres ZAILDU S.L.**

**MAKINARIA KONPONTZEN ESPEZIALISTAK**
Mandrinadorean planoekin egindako lanak
Fresadora, Taladroa, Tornoa eta Errektifikadora

*Gabon jai zoriontsuak elgoibartar guztioi!*

Santa Klara, 40 – Tel: 943 74 07 60 – Faxa: 943 74 39 95

---

**ERRETXINDI**
Inmobiliaria Agentzia
**API 254**

*Jai zoriontsuak pasatu!*
*Zorionak, Haritz!*

Errosario, 25 ☎ 943 74 43 58

---

**BAMA S.L.**
ERAIKUNTZAK



ETXEBIZITZA
ETA
PABILIOI INDUSTRIALEN
**PROMOZIOA**

San Inazio, 4 - Tel: 943 74 14 99
ELGOIBAR (Gipuzkoa)

---

JAIETAN
OILASKO GOXOA ETA
ETXEKO SAGARDOA

[redacted]

**TABERNAN**
*Ondo pasa jaiak!*
**Tel: 943 74 03 87**

---



ARANBAR
Grua eta plataformadun

*Elgoibartar guztioi jai zoriontsuak opa dizkizuegu!*

**Tel:** 943 74 02 42 **Tel. mugikorra:** 908 77 06 37 **ELGOIBAR**

ESTUDIOS ARRILLAGA
INTERIORES

Proiektu eta erreformak
lokal komertzial eta etxebizitzetan
Gremioen zuzendaritza





Sukalde eta bainurako altzariak
Opariak

Errosario, 15 behea Tel: 943 74 40 55 ELGOIBAR
Arragueta, 12 behea Tel: 943 20 06 98 EIBAR

BANKA ETA FINANTZA-ZERBITZUAK

Zure zerbitzura jartzen ditugu inbertsio fondo eta beharrezko dituzun banka eta finantza-zerbitzu guztiak; beti ere, errentagarritasun handienarekin eta kondizio onuragarrienekin.

AUTO-ASEGURUAK

Auto aseguruetan aukerarik zabalena eta bidaia laguntzari dagokionean sare zabal eta onena, merkatuko etxe onenaren garantiarekin.

MAPFREk ETXE-ASEGURUAK

etxe-aseguru konpletoena eskaintzen dizu; zure familiak, zure etxeak eta zure tresnek onena merezi dutelako.

MAPFRE
ZURE BIZI-KALITATEA ASEGURATZEN DUGU



San Frantzisko, 40
Tel: 943 74 05 82
http://www.mapfre.com

JUBILAZIO ETA OSASUN ASEGURUAK ETA PENTSIO PLANAK

MAPFREk, ongizate eta lasaitasun mailarik altuena eskaintzen dizu; zure etorkizuna aseguratzen espezialistak garelako betidanik.



Santa Ana, 16 Elgoibar
Tel: 943 74 29 94

*Ondo pasa San Bartolomeak!*

# aroztegia




- LEIHOAK
  Egurra - aluminioa
  Aluminioa
  PVCa
- ARMAIRU
  ENPOTRATUAK
- ATEAK
- TARIMAK





# Juan Mari Uranga
## Banatzaile ofiziala

• Gailur Ardandegien banatzailea • Errasti Bodegak - Txapeldun Ardoak • Zudugarai Txakolina



**Gure mahastietan landutako aleak zuzenean bodegara.**
**Bodegatik mahaira zuzenean.**

San Roke, 30 behea
Tel: 943 74 33 25 • Mugikorra: 929 42 66 16

MITSU ISHI
M T S

NISSAN

GALLOPER

ALDIKAR AUTOAK, S. L.

# LURROROTAKO ESKAINTZARIK ZABALENA

## NON?

## ZATOZ Aldibira



NISSAN TERRANO II



PATROL GR berria



NISSAN PICK UP



MITSUBISHI MONTERO



MITSUBISHI L200



GALLOPER

Olaso kalea, 23 - 20870 ELGOIBAR
Tel: 943 74 20 37 - Faxa: 943 74 35 24
(Lehen Autos Artetxe)

Zigarrola kalea, 1 - 20500 **Arrasate**
Tel: 943 71 20 02 - Faxa: 943 79 65 65

1973 25 1998

# Zer begitantzen zaizu Haritzek 25 urteotan egindako lana?



**AINHOA DORADO**
**10 urte, ikaslea**

Ondo, gustatzen jata euskal dantzak ikustia, gainera oso ondo itxen dabe dantza. Ni txikixaua nitzanian ibili nitzan ikasten.



**ARKAITZ ARANBURU**
**22 urte, irakaslea**

Egixa esan euskal dantzak ez ditxut gehixegi jarraitzen eta dantzan ere ez dakitx baina oso ondo dao euskal kultura landu eta zaintzia.



**AMAIA EZENARRO**
**33 urte, irakaslea**

Zoriontzekua da in daben lana euskal kultura bultzatzeko. Dantzak eta soinekuak berreskuratu ditxuzte eta hemen ezagutu ditxugunez gain, berrixak erakusten ahalegindu dia.



**TXOMIN AROZENA**
**70 urte, jubilatua**

Oso ondo, oso ondo. Oso dantzari onak dia, langiliak eta meritu haundikuak. Inpresionantia da in daben lana; Sarasua eta Odriozola oso onak dia.



**MARIBEL PEREZ**
**39 urte, etxekoandrea**

Lan bikaina egin dutela iruditzen zait. Gainera, etengabe ari dira berritzen eta benetan ikusgarriak dira ateratzen dituzten jantziak eta dantza berriak.



**ENRIKE BARRENETXEA**
**51 urte, metalurjikoa**

Gure folklorea babestu eta bultzatzeko oso lan ona egin dute, ez bakarrik dantzan, baita txistuan eta euskal musikan ere. Ea beste 25 urte betetzen dituzten!

GABILONDO
TABAKO DENDA
San Bartolome jai zoriontsuak!
Errosario, 2 Tel: 943 74 16 38

GOROSTIZA
LIBURUDENDA
• Jostailuak
• Eskolako materiala
• Opariak
• Fotokopiak
Ondo pasa jaiak!
Errosario, 16 Tel: 943 74 03 88

Tximak
ILEAPAINDEGIA - SOLARIUMA
Kalamua, 2 behea - Tel. 943 74 43 57 - ELGOIBAR

BRONCES GARITANO, S.A.
BRONCES GARITANO, S.A.
San Bartolome Jai
Olaso kalea, 15 · 20870 ELGOIBAR · Tel: 943 74 41 25/74 41 26

## ION ARRIETA eta LOURDES ODRIA:

# "Guk hazixa erein baino ez gendun ein"

*1973ko San Bartolome egunean sortu zen Haritz dantzari Taldea. Sorreraren inguruko datu gehiago jakin nahian Ion Arrieta eta Lourdes Odria ekarri ditugu gure artera. Senar-emazte honek barru-barrutik bizi izan du euskal dantzarekin lotutako guztia. Hala ere, ezer esan aurretik gauza bat argi laga nahi izan dute. Nahiz eta orrialde hauetan euren argazkia eta berbak agertu, "Haritz Dantzari taldearen sorreran jende askok hartu zuen parte eta denek berdin egin genuen lan taldea aurrera ateratzeko".*



**- Gogoan al duzue noiz hasi zineten lehen aldiz euskal dantzan?**

- Nik, (Lourdes) egixa esateko, etxeko sukaldian ikasi naban dantzan gure aitxakin (Jose Odria). Gero, Ongarrin hasi ginan. Kutur Elkarte bat zan, euskal kultura lantzen zuen elkartea, Elgoibarko Izarra sortu aurretik zegoena.

**- Elorra taldean ere egon zineten.**

- Bai. Ongarrin egon eta gero, urte batzuetako etena egon zan eta ondoren hasi ginan Elorran. Elkarte honen barruan nagusien dantza taldea zegoen. Hala ere, Elorra baino lehen, Gabonetan neskak Parrokixakin ateratzen ginan urtero. Jaiotza bat izaten zan, karroza eder batekin eta kaleetan zehar ibiltzen ginan. Orduan dantzatzen eta kantatzen zan 'Artzai Buru Zuri Bi, Antxon eta Peru...' Abenduaren 25ean izaten zan beti.

**- Elorran nagusien taldean zeundeten. Elgoibarko Izarran, berriz, umeei euskal dantza irakasten zenieten.**

- Elorrak ez zituen inoiz umiak eduki, nagusien dantza taldia zan. Hortik, Elgoibarko Izarrako umiei erakusten hasi ginan Ixidor Solupe arduraduna zelarik. Gero, Ixidorrek umien taldia utzi zabanian, berarekin geudenok jarraitxu gendun. Elorran geundenontzat inportantia zan guk ikasten genduzen dantzak gero Elgoibarko Izarrako umiei erakustia. Nahiz eta bi erakunde desberdin izan, umeei erakusteko konpromizua hartu zan. Askok gogoratuko dozue Merkatu Plazako azkenengo pisuan ematen ziala klasiak. Garai hartan Elgoibarko Izarraren baitan dinamika haundixa zauan. Euskal dantzaz aparte, balleta ere bazauan, txistua,...

**- Bitartean zuek Elorra Dantza taldean jarraitzen zenuten. Zein ekitalditan hartzen zenuten parte?**

- San Bartolomietan eta auzuetako jaixetan beti eitxen gendun dantza. Hala ere, goguan daukagu oso berezixa izan zala urte batian ein gendun ajedrez bizi-duna. Plaza Haundixan izan zan. Elgoibarko talde batek lelengo aldiz ein zaban 'Kaxarranka', kaja baten gainian eitxen dan dantzia. Ixidorrek berak ein zaban dantza kaja gainian.

**- Zer dantza egiten zenituzten?**

- Bizkaiko dantzak gehixen bat: ezpata-dantza, zortziko, arku-dantza, txakarranko,... eta Nafarruakuak ere bai: sagar-dantza eta holakuak. Gipuzkuako dantzakekin hasi ginanian Haritz Dantzari Taldia bezela izan zan.

**- Tartean, Elorra desagertu al zen?**

- Ez dakigu zergatik baina bai, desagertu egin zen. Elorran egon ginaneko garaia klandestinidadeko garaia izan zan. Orduko epokia oso diferentia zan. Ensaiuak Plaza Txikiko 'kakalekua' esaten genion lekuan eitxen zian. Tailer zahar eta zikin bat zauan, kristalak erdi apurtuta zitxun, haura txukundu eta ahal zan moduan entsaitzen gendun. Pilar kolegixoko frontoian ere eitxen genitxun entsaiuak.

**- Ondoren, Elgoibarko Izarran jarraitu zenuten.**

- Bai. Ixidorrek Elorran hasitako lana Elgoibarko Izarran jarraitxu


**Gabiola GESTORIA**

- Ibilgailuak
- Garraioak
- Gai orokorrak

AURORA ASEGURUAK

San Frantzisko, 22 - Tel-Faxa: 943 74 07 97 - ELGOIBAR

**DEBAPE**
INPRIMATEGIA
komunikazio grafikoa

• DISEINU GRAFIKOA • OFFSET LITOGRAFIA • FOTOKONPOSIZIOA
• PUBLIZITATE DISEINUA • ERA GUZTIETAKO IRAGARKI KOMERTZIALAK

Olaso industrialdea, 27 • Tel.: 943 74 40 58 • Faxa: 943 74 41 78

**"Giro politikuak asko markatzen zaban. Politika, kultura,... dana zauan nahastuta. Taldian dana erabakitzen zan asanbladen bidez eta ez zauan bururik".**

zaban. Garai hartan sekulako umeen euskal jaixak montatzen zian, bai Elgoibarren, bai inguruko herri guztietan. Ume mordo batek hartzen zaban parte eta giro haundixa sortzen zan. Askok gogoratuko dabe nola juten zian neska-mutilak etxietara bazkaltzera. Sasoi honetan Elgoibarko Izarran geunden gu. 300 umetik gora zian eta hasieran ez zaben ezer ordaintzen eta askotan beste herrixetara jun bihar izaten ginan eta dana zan gastua. Gero matrikula kobratzen hasi zan, huskerixia, baina diru horrekin behintzat materiala erosteko bazaukagun.

**- Sasoi horretan San Bartolome Eguneko aurreskua edo soka-dantzaren jarraipena arriskuan zegoen notizia izan zenuten.**

- Udaletxetik jaso gendun egun horretan aurreskua eitxeko eskaera. Elorran egondako batzuk eta Iñaki Gil, bere kuadrila eta beste batzuk, 10 bat lagun elkartu ginan soka-dantza eitxeko. Momentu honetan Haritz sortzen dala kontsideratzen degu.

**- Aurreskua egin eta gero, dantzak ikasteari ekin zenioten.**

- Asmua hori zan. Aurreskua ein gendunak dantzak ikasi, eta gero, jende berrixa topatu, guk ikasitxakua erakutsi eta taldia montatzeko. Beti dantza berberak eitxen genitxun eta erabaki gendun Gipuzkoako dantzak ikasi ein bihar genitxula. Horrela Nik (Ion) Donostian ikasten nabanez, Urbeltzekin hasi nitzan dantzak ikasten, Argia taldearen entsaiuetara junez. Apunte batzuk hartu eta hola ibiltzen ginan. Ordurako, Elgoibarko Izarra bezela, Iurretara juten hasi-txa geunden umei gauza berrixak erakusteko. Elgoibar bertako dantza eta inguruan eitxen ez dan 'Artzai Buru Zuri' kenduta, beste guztiak kanpotik ekarritxakuak dia. Horrela, hainbat dantza ikasi genitxun. Hau da, kanpuan ikasten zeudenak bertako taldietako entsaiuetara junez. Josu Mujika, adibidez, Gasteizen zegoen eta Eltziegora jun zan dan-tzak ikastera.

**- Ondoren jaialdia prestatu zenuten.**

- Jendia oso animauta zauan eta 1977ko urtarril hasieran Odeoian jaialdi bat ein zan. Lelengo jaialdi inportantia izan zan. Gu Elgoibarko Izarran geunden eta ikusten gendun elkartian barruan egonda, Haritzek bazakala babes moduko bat. Era guztietako dantzak ein genitxun. Arabako dantzak lehen aldiz ein zian Elgoibarren, Josuk Gasteizetik ikasitxa ekarri zitxunak. Eta Bizkaikuak, Nafarrokuak eta Gipuzkuakuak ere ein zian.

**- Txaranga ere bazegoen?**

- Haritzeko kide batzuk txaranga moduko bat ein gendun, soinua, xirula, tronboia etab. jotzen gendun. Honez gain, dantza ein bitxartian, dantzari batzuk eszenarixo albuetan goruetan ari zian.

**- Eszenografia, arropak,... dena zuen kontura egin zenuten?**

- Argixak nola ipini, eszenarixuan dekoraua,... dana ein gendun guk. Galtzerdixak ere, bakoitzak beriak ein zitxun. Baserrixetara jun eta handik tresnak ekarri zian jendiak ikusteko baserriko lanak nola eitxen zian. Arkuak eitxeko adarren bila ere baserrixetara jun ginan. Adar haiek hartu eta uretan eukitzen genduzen gero forma eman ahal izateko. Eta makilekin berdin. Materiala erosi eta guk geuk torneatzen genitxun tailerren batian. Dirurik ez zakagun eta hola ibili bihar izaten gendun, dana gure kontu eitxen.

**- Nola funzionatzen zuen taldeak?**

- Gauzak oso desberdinak zian. Giro politikuak asko markatzen zaban. Politika, kultura,... dana zauan nahastuta. Taldian dana erabakitzen zan asanbladen bidez eta ez zauan bururik. Hala ere, lan guztian komisiuetan zauan banatuta. 25 edo 30 bat lagun izango ginan baina inork ez zaban bestien gainetik agintzen. Gure helburua jaixetan parte hartzia eta ahal zanian jaialdi bat eitxia zan. Gabonetan zeozer eitxen bazan, igual maiatzerarte ez zan ezer eitxen. Funtzionatzeko era desberdina zan. Gaur egun, berriz, ibiltzen diren moduan ibiltzeko disziplina behar da.

**- Noiz arte egon zineten taldean?**

- 78 edo 79 urteen bueltan. Ardura falta zegoen eta nekatu egin ginen. Guk eta hasierakuek, hazixa jarri gendun. Urtietan taldiak aurrera egin du, bere bide propioa landu dau eta pozgarrixa da ikustia gaur egun zer maila hartu daban. Azken batian, lelengo Elorra izan zan, gero Elgoibarko Izarra eta gaur egun Haritz. Bata bestian jarraipena eta loturia diala esan leike.



*1977ko urtarrilean egin zuen Haritz Dantzari Taldeak lehenengo jaialdi inportantea.*

## JUAN ANTONIO URBELTZ

# "Dantzek herri baten nortasuna eta

***1940. urtean jaio zen Iruñean. Besteak beste, ikerlaria dugu. 1965ean `Argia` taldea sortu eta taldean euskal folklorea aztertzen eta euskal dantza eta melodien bilduma osatzen hasi zen. 500 melodiatik gora biltzen dituen ondarea antolatzeaz batera, galtzear zeuden jantzi, tresna eta koreografiak ikertu eta jaso ditu. Berak prestatutako ikuskizunen artean, `Zortziko` (1988) eta `Alakiketan` (1992) nabarmendu ditzakegu. Azken urteotan harreman zuzena izan du Haritz Dantzari Taldearekin eta horregatik egon gara berarekin.***

**- Zer esanahi daukate dantzek herri baten nortasunari eta izakerari dagokionean?**

- Dantzek, berez duten esanahiaz aparte, herri baten nortasuna eta izakera erakusten digute. Halaber, dantzak bizirik mantentzeak herriaren nortasuna eta autoestima indartzen ditu. Bestalde, dantzak galtzeak inork imajinatu ezin duen kultur galera ekarriko luke.

**- Dantza zuk nahi baino baztertuago ikusten duzu, ezta?**

- Euskal fokloreak, Europako folkloreak bezala, botere politikoaren eta erlijiosoaren pertsekuzioa ezagutu du. Gure kasuan, jazarpen honek gure



herriaren desegituraketa bilatzen zuen. Honek, gaur egun dantzaren balioa hain arin eta ezjakintasunez eztabaidatzen dutenei zer pentsatua eman beharko lieke. Disparate bat da, dantzarik gabe oso zaila baita Euskal Herria imajinatzea.

**- Herri bakoitzak bere dantzak al ditu hizkuntza propioa duen neurri berean?**

- Herri guztiek dantza propioak dituzte baina ez bakoitzak bere hizkuntza duen neurri berean. Europako parte askotan musika eta koreografia antzerakoak daude, nahiz eta hizkuntzak ezberdinak izan. Iberiar Penintsulako iparraldea honen adibide garbia da: hizkuntza ezberdinak izan arren, erritmo,

Ametsa
Ondo pasa Jaiak! KAFETEGIA

Txintxo
I.P.E gestorea 2.044 zkia.
Gestio Inmobiliarioa
Europako Profesional Inmobiliarioen Konfederazioko kidea
San Bartolome, 2 behea Tel: 943 74 34 65

AZALEA edergintza
MARI KARMEN BERECIARTUA
Estetizista · Bisajista · Masajista
GORPUTZ eta AURPEGIRAKO tratamenduetan **azken berrikuntzak**
Trenbide kalea, 3, behea (estazio parean) - Tel: 943 74 03 10

TXIMI, S.A. TAILERRAK
Tornu, fresadora eta rektifikatu LANAK
OLASO industrialdea behea. Tel/Faxa: 943 74 10 40

estilo eta dantza egiteko era antzerakoak ikus ditzakegu; ‘orripeko’ edo ‘arin-arin’ dantzak kasu, Potugaleko Miñotik hasi eta Nafarroako Baztaneraino dantzatzen dira. Halere, Euskal Herriko kasuan dantzek aberastasun eta esanahi berezia hartzen dute, lotura zuzena baitute hain zaharra eta berezia den euskararekin.

